

## **2022KO MAIATZAREN 11KO OHIKO BILKURA**

**LEKUA:** Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

**DATA:** Bi Mila eta hogeita biko maiatzaren hamaikan.

**ALKATE-LEHENDAKARIA:** Iñaki Ugalde Alustiza.

### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Asier Aguirre Murguiondo.  
Jule Aramburu Mariezkurrena.  
Erkuden Aguirre Arruabarrena.  
Aitor de Astobiza Uriarte.  
Miren Arantza Oiarbide Perez.  
Iñaki Zabalo Echezarreta

### **EZ BERTARATUTAKOAK:**

Inor ez.

**IDAZKARIA:** Martin Iparragirre Mujika.

**BATZARRA:** Ohikoa **DEIALDIA:** Lehenengoa

**HASIERA ORDUA:** Arratsaldeko 19:00etan

**HAMAIERA ORDUA:** Arratsaldeko 20:00etan.

Udal Osoko Bilkura hasi aurretik, idazkari-kontuhartzaileak gogorarazi du gai zerrendako puntuak dagozkien Informazio Batzordeetan diktaminatuta daudela.

### **GAI ZERRENDA**

- **Aurreko bilkuretako akten onarpena, hala badagokio: 2022ko otsailaren 2ko Ezohiko Bilkura eta 2022-04-27ko Ezohiko Bilkurako aktak.**

Aipaturiko aktak aurkezten dira Bilkura honetan onartzeko.

Bozkatu ondoren, aho-batez onartuta geratu dira.

- **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**

Udal-kideei aurreko Bilkuratik hona igorritako alkatetza ebazpenen berri eman zaie:

- Alkatetzaren ebazpenak:
  - 2021eko 43 zenbakitik 47 zenbakira.
  - 2022ko 1 zenbakitik 14 zenbakira.

Udal-kideak jakinaren gainean geratzen dira (faktura zerrendei dagokien Ebazpenak zinegotzi guztiei pasatuko zaizkie)

- **Hiri-lurren Balio Gehikuntza arautzen duen ordenantzaren aldaketa espedientea hasierako izaeraz onartzea.**

### **HONAKO HAU IKUSITA:**

Gipuzkoako Toki Ogasunak Arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araueko 3. Sekzioko III. Atalburuan eta zergari buruzko 16/1989 berariazko arauan xedatutakoaz, zein 7/2021 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 16koa, Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Araua Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzekoaz bat, hiri-izaerako lursailen balio gehikuntzaren gaineko zerga arautu eta galdatzen da.

### **KONTUAH HARTUTA:**

Arautegian izandako aldaketei egokitzeko prestatu dela Ordenantza berria, eta honako hauek direla proposatutako urteko portzentaien koadroa eta zerga tipoa:

I. Balioen gehikuntza zehazteko urteko portzentaien koadroa.

	%
Urtebetetik behera .....	0,13
Urte bat .....	0,12
2 urte .....	0,14
3 urte .....	0,15
4 urte .....	0,16
5 urte .....	0,16

6 urte .....	0,15
7 urte .....	0,11
8 urte .....	0,09
9 urte .....	0,08
10 urte .....	0,07
11 urte .....	0,07
12 urte .....	0,07
13 urte .....	0,07
14 urte .....	0,09
15 urte .....	0,11
16 urte .....	0,15
17 urte .....	0,19
18 urte .....	0,25
19 urte .....	0,35
20 urte edo gehiago .....	0,44

II. Zerga tipoa.

Zerga tipoa: % 10,15.

Hori dena kontuan hartuta, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau

### **ERABAKI DU:**

Hasierako onespina ematea, Hiri-lurren balio gehikuntza arautzen duen ordenantzaren aldaketaren espedienteari.

Aipatutako akordioa eta izapidetutako espedientearen informazio publikoan jartzen dira, uztailak 5eko 11/1989 zk.-dun Foru Arauko 16.1 artikularen eraginez, Gipuzkoako Tokiko Ondasunen erregulatzailerak, bide ofizial honetan iragarkia argitaratuz eta Udaletxeko Iragarki Taulan, hori dena arau hauen barruan:

a) Agerian dagoen lekua: Udal honetako Idazkaritzan.

b) Aztertzeko eta bere kasuan kexak agertzeko epea: 30 egun baliodunak, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN agertzen denetik, eta laneko ordutan.

c) Erreklamazioak jartzeko aukera dutenak: Uztailak 5eko 11/1989 zk.-dun Foru Araueko 17. artikuluan zerrendatzen direnak.

d) Aurkezteko tokia: Udalaren Sarrera Erregistro Orokorrean. Administrazio Publikoetako Erregimen Juridikoari eta Administraziozko Prozedurari buruzko 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 38.4 artikulua zehaztutako tokietan ere aurkez daitezke.

e) Erreklamaturako organoa: Udal Plenoa.

Informazio honen epea amaitu ondoren, kexarik edo oharrik gabe, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira, akordio berrien beharrik gabe.

- **Ostatu-pentsio-etxebizitzaren ustiakuntza lizitatzeko baldintza ekonomiko-administratiboen agiria onartzea.**

### **HONAKO HAU IKUSITA:**

2022ko urrian amaitzen dela Ostatu-pentsio-etxebizitzaren ustiakuntza kontratuaren iraunaldia, eta derrigorrez berriro lizitaziora atera beharra dagoela.

### **KONTUAN HARTUTA:**

Lizitaziora berriro ateratzeko prestatutako Baldintza Ekonomiko-Administratiboen agiri berriak, besteak beste, honako ezaugarri hauek dituela:

- Izaera administratiboa du, eta kontratu administratiboari dagozkien arauak zuzenduko dute.
- Iraupenari dagokionez 5 urtekoa izango da, izenpetzen den biharamunetik kontatzen hasita. Lehenengo urtea froga urtea izango da eta Udalak ikusiz gero zerbitzua ez dela era egokian eskaintzen, kontratua eten egin ahal izango du.
- Kontratazio hau prozedura irekiaren bitartez esleituko da, eta eskaintzak aurkezteko 26 egun naturalak izango dira, iragarkia kontratazio profilean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

- Lizitazioaren oinarritzko kanona taberna, jatetxea, pentsioa, etxebizitza, hileko 400,00 eurotan (BEZ aparte) ezartzen da.

Hori dena kontuan hartuta, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau

### **ERABAKI DU:**

#### **LEHENENGOA:**

Aurkeztutako baldintza ekonomiko-administratiboen agiria onartzea eta esleipen prozedura abian jartzea.

- **EUDELeK bidalitako proposamenarekin bat etorriz, 2022 urterako Udal langileen ordainsarien %2ko igoera onartzea.**

#### **HONAKO HAU IKUSITA:**

2021eko abenduaren 29an, Estatuko 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legea argitaratu zela Estaduko Aldizkari Ofizialean, eta ordainsariei dagokienez honela esaten duela hitzez-hitz: 2022. Urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak ezin izango dute %2ko igoera baino handiagoa izan 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

#### **KONTUAN HARTUTA:**

EUDELeko 2022ko urtarrilean bidalitako idatzia non honako hau gomendatzen duen: 22/2021 Legearen 19 B artikularen edukia dagokionez, sektore publikoko langileen ordainsariak handitzea 2022/01/01etik aurrerako ondorioekin, lege onartutako gehienekoa, hau da, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko %2a hain zuzen ere.

Hori dena kontuan hartuta, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau

### **ERABAKI DU:**

#### **BAKARRA:**

Mutiloako Udal langileen ordainsariak %2ko igorera onartzea, dena 2022ko urtarriletik aurrerako ondorioekin.

- **2021-2023 epealdirako etxez-etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatu beharreko hitzarmenaren onespena.**

## **IKUSIRIK:**

Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko zerbitzu sozialak sistema integratu batean antolatzen eta egituratzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan zerbitzu horiek hartzeko eskubidea herritar guztiei bermatzeko.

Aipatutako legearen 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELD) jasotzen da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen barruan, eta udalen eskumenekoa da zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikulua ezarritakoaren arabera.

Legearen eskumen-banaketaren arabera, zerbitzu hori udalaren eskumen-eremuan ematen bada ere, aipatutako legearen hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitako euskal administrazio publikoen arteko finantza-berregokitzea gauzatzen ez den bitartean, udalak ezin du bere gain hartu etxez etxeko zerbitzuaren finantzaketa bakarrik. Ez, behintzat, horrek intentsitate- eta estaldura-mailak murriztea ekarri gabe, aipatutako xedapen iragankorrak berariaz debekatzen duen bezala.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaileei ematen zaien arreta hobetzeko asmoz, 2018an lankidetzahitzarmen bat formalizatu zuten. 2021eko irailaren 30ean amaitu zen haren indarraldia, eta, bertan, zerbitzua finantzatzeko sistema arautzen zen.

Bi administrazioen helburua da eskumenak berrantolatzen jarraitzea. Hori dela eta, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaiaren barruan, erabaki dute 2021-2023 aldian zehar ELZren baterako finantzaketari eustea.

Horretarako, lankidetzeta-hitzarmen berri bat formalizatu behar dela uste dute.

### **KONTUAN HARTUTA:**

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Mutiloako Udalak sinatu beharrelp hitzarmen honen xedea da udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak definitzea, Erakunde arteko Mahaiak aldez aurretik adostua.

Hitzarmenaren gainerako klausuletan daude Gipuzkoako Foru Aldundia alde batetik eta bestetik Udalak hartzen dituzten konpromiso ekonomikoak eta betebeharrak.

Hori dena kontuan hartuta, eta hitzarmenaren eduki osoa aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez,

### **ERABAKI DU:**

#### **BAKARRA:**

2021-2023 epealdirako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Mutiloako Udalaren arteko hitzarmena onartzea, eta alkate jaunari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko.

- **Abenduaren 28ko 20/2021 Legeko Mutiloako egonkortze prozesua abian jartzeko lanpostu zerrendaren aldaketa onartzea, eta halaber enplegu publikoaren eskaintza ere onartzea.**

Alkate jaunak idazkariari eman dio hitza gai hau azaltzeko, eta honek adierazi du pasa den urte amaieran onartu zela enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko

20/2021 Legea, administrazio publikoen behin behinekotasun tasa egiturazko plazen %8aren azpitik ezartzea helburua izanik, lege honek egonkortze prozesu osagarriak modalitate ezberdinetan aurreikusten ditu, konkretuki bi modalitate hauek:

- 2016ko urtarrilaren 1eko datatik baino lehen etenik gabe hutsik dauden lanpostuak, kasu honetan egonkortzea merituen balorazio bitartez egin beharko da.
- 2020ko abenduaren 31 baino lehenagotik etenik gabe gutxienez hutsik 3 urte daramaten lanpostuak, kasu honetan egonkortzea oposaketa-lehiaketa berezi baten bitartez egin beharko da.
- Bi kasuetan enplegu publikoaren eskaintzak 2022-06-01 baino lehen argitaratu behar dira, eta hautaketa prozesuen deialdiak 2022-12-31 baino lehen egin behar dira, eta prozesu osoa 2024-12-31rako amaitu.

Idazkariak jarraitu du esanez, langilegoaren ordezkariarik ez dagoenez, banan-banan hitz egin dela langile guztiekin, eta azkenean osatu den txostenaren arabera Mutiloako udalari dagokionez, kasu honetan bakarrik gizarte langilearen lanpostua dagoela, eta gaia hobeto kudeatzeko Zegama, Segura, Zerain eta Mutiloako Udalen artean lankidetzaren hitzarmena sinatuko dela, elkarrekin eratzeko eta gizarte langilearen lanpostua elkarrekin mantentzeko.

Hori dena kontuan hartuta, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez,

### **ERABAKI DU:**

#### **LEHENENGOA:**

Gizarte Langilearen lanpostua elkarrekin mantentzeko Zegama, Segura, Zerain eta Mutiloako Udalen artean sinatzeko prestaturiko lankidetzaren hitzarmena onartzeaz gain, Ezkio-Itsaso udaleko 2022rako Lan Eskaintza publikoa onartzea eta argitaratzea. Honako hau da bere edukia:

Funtzionarioa:

1. Plazaren izena: Gizarte langilea.



- Taldea/Azpitaldea: A2.
- Eskala: Administrazio berezia.
- Azpieskala: Teknikoa.
- Klasea: Erdi-mailako teknikaria.
- Titulazioa: Gizarte zerbitzuetan Diplomaturia edo Gizarte lanetan gradua.
- Maila: 19 D.O.
- Dediakzioa: % 7,01
- Lanpostua betetzeko era: Lehiaketa.
- Hizkuntza eskakizuna: 3 derrigorrez.
- Plaza-kopurua: 1.

## BIGARRENA:

Mutiloako lanpostu zerrenda eta plantila organikoaren aldaketa onartzea. Honako hau da laburtuta bere edukia:

2022 URTEKO LANPOSTUEN ZERRENDAK

### KARRERAKO FUNTZIONARIEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Orden  Zkia.	Izena	Lanp.  Kop.	Lanp.  Mota	Horni.  Era	Ordainketa Osagarriak		Dedika z.	Buleg .	Lanpostu Horretarako Exijitutako Ukan Beharrak						
					Udalhit ze/Des tinu	Osagarri			Adskripzioa		Hizkuntz Eskakizuna		Exijituta ko Titulazi oa	Oharra k	
					Osagar . Maila	Espezifik oa			Tald.  Eskal .	Azpi- Eskal .	Klase a	Maila			Aginduzk o Data
(1)	(2)	(3)	(4)	(5)	*(6)	(7)	(8)	(9)	(10)	(11)	(12)	(13)	(14)	(15)	(16)
1	Idazk.Kontuh.	1	S	C	21-24	6.402,84	% 30	IK	A1/A 2	IK	3	4	94.12.31	10	--
2	Administ.	1	N	C	13-18	16.589,7	% 100	IK	C1	A.0	-	3	00.04.11	20	--
3	Gizarte langilea	1	N	C	20 (D.O.)	1.048,15	%7,01	GZ	A2	ET		3	22.05.11	50	

---

\* Titulazioa:

-10: Gradu edo baliokide unibertsitateko titulazioa.

-20: Batxiler teknikoa edo baliokide titulazioa.

-50: Gizarte zerbitzuetan diplomatua edo Gizarte lanetan gradua.

Idazkari-kontuhartzailearen lanpostuari dagokionez Mutiloa, Zalduondo eta Zerain udalerriek osaturiko elkarte eratu dago.

Gizarte Langilean lanpostuari dagokionez Zegama, Segura, Zerain, Mutiloa udalerriek osaturiko elkarte berria eratu da.

- **Errotatxorako ondare bilduma lagatzeko gaiari buruz, Antonio Iparragirre eta Mutiloako Udalaren arteko hitzarmena onartzea.**

### **IKUSIRIK:**

Honako hau dela hitzez-hitz adostu den hitzarmenaren edukia:

### **BILDU DIRENAK:**

Alde batetik: IÑAKI UGALDE ALUSTIZA, adinez nagusia, NA: 72.436.603N duena.

Bestetik: ANTONIO IPARRAGUIRRE ALDASORO, adinez nagusia, NA 15009611H eta helbidea Mutiloan, Ugalde baserrian.

### **AZALPENA:**

1.- Antonio Iparragirre Aldasoro, eranskinean deskribatzen diren antzinako bildumaren jabari osoaren jabea dela, eta kontratu honen xede diren piezen ondare eta ustiapen-eskubide guztien titular eskusiboa dela, eta aipatutako eranskinean jasota daudela.

Bilduma ondasun etnografikoek osatzen dute. Ondasun horiek, zalantzarik gabeko balio historikoa dute, kultura tradizionalaren eta herri-kulturaren erreferente diren aldetik. Euskal baserriaren eguneroko bizitzan erabiltzen diren erremintak, besteak beste, errotari eta oihalei dagozkienak, hala nola, erromatar pisu bat, neurriak, lihozko oihalak egiteko tresnak, beheko sutarako tresnak eta sukaldea, etab.

2.- Mutiloako Udalak aipatutako bilduma Errotatxeko erakusketa-funtsean kontserbatzeko eta zabaltzeko interesa duela, eta, bilduma hori Errotatxon gordetzeko borondatea adierazi du.

3.- Antonio Iparragirre Aldasorok Mutiloako Udalarari Errotatxon, aldi baterako bilduma eman nahi diola, helburu hauekin:

a. Bilduma horren balio historiko eta kulturala Errotatxoko eremu etnografikoan zabaltzea.

b.- Bilduma bere osotasunean, kontserbatzeko eta zaharberritzeko zenbait lan egitea.

c.- Bildumaren balorazio bateratua egitea.

Hori dena, bilduma hedatu eta zaintzeko, Errotatxon ikusgai gera dadin.

4.- Udalak, Antonio Iparragirre Aldasoro Euskal Herriko kultura-ondareko piezak bilatzeko eta biltzeko bizi osoa jardun dela hartuko du kontuan, horietako batzuk hemen zerrendatutakoak dira, eta ahalegina egingo du horien jatorria jakitera eman eta aitortzeko.

5.- Erakunde biak bat datoz elkarlana zehazterakoan eta KOMODATU KONTRATUA hau sinatzen dute, Kode Zibilaren 1741 eta ondoko artikuluen arabera arautu eta ondoko klausula hauen arabera eratzen dena,

## **KLAUSULAK:**

**Lehena.-** Mutiloako Udalak ERANSKINEan deskribatutako bere jabetzako bilduma jaso du Antonio Iparraguirre Aldasorongandik

Bilduma hori etorkizunean pieza gehiagoarekin handitu daiteke, bi alderdiek egokitzat jotzen badute, betiere zerrendatu eta baloratzen badira.

Era berean Udalak dagokion aseguru-poliza formalizatu du, bilduma ERROTATXOn kokatu du, piezak ikusgai egon daitezten.

**Bigarrena.-** Kontratu hau indarrean egongo da erakusketa indarrean dagoen bitartean, eta 10 URTEko eperako hasiera batean, 5 urteko epe luzatu ahal izango da, gehienez ere beste bi alditan, hau da 20 urte gehienez.

Une horretan, bi alderdien adostasunez erabakiko da gordailua behin betiko kenduko den, kasu horretan, bilduma Antonio Iparraguirre Aldasorori edo haren oinordekoei eman beharko zaie adosten den lekuan. Edo, Mutiloako Udalak bilduma behin betiko eskuratzen duen.

**Hirugarrena.-** Antonio Iparraguirre Aldasorok, kontratu honen bidez eta bildumaren gordailuak irauten duen bitartean, bilduma jendaurrean jartzeko eta piezen gida, katalogo eta liburuxketan erreproduzitzeko eskubidea, Udalari ematen dio.

**Laugarrena.-** Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

a.- Komodontearekin batera, bilduma osatzen duten piezen balorazio bateratua egitea.

b.- Bilduma egoera onean mantentzea, eta edozein deformazio, aldaketa edo matxuraren aurrean, balorazioaren arabera erantzutea.

c.- Piezen zaharberitze-lanen bat behar badute, hasieran zen amaieran, Udalaren kontura izango da.

Era berean, Udalaren kontura izango dira bilduma zaindu eta kontserbatzeko betebeharra dela eta sor daitezkeen lekualdaketa-gastuak eta gainerako gastuak.

**Bosgarrena.-** Kontratu hau sinatzen dutenek, Donostiako Epaitegi eta auzitegien mende jarriko dira interpretazio eta ondorioetan desadostasunak egongo balira, eta espresuki uko egingo diete legezkiekeen bestelako eskumenei.

Ados daudela erakusteko, parte hartzaileek hitzarmen honen hiru ale sinatzen dituzte idazpuruan adierazi den lekuan eta egunean.

### **KONTUAN HARTUTA:**

Hori dena kontuan hartuta, eta hitzarmenaren eduki osoa aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez,

### **ERABAKI DU:**

### **BAKARRA:**

Antonio Iparraguirre Aldasoro eta Mutiloako Udalaren arteko sinatu beharreko hitzarmena onartzea, eta alkate jaunari ahalmena ematea sinatzeko.

- **3.000 eurotik goragoko fakturen onarpena.**

Ondoren adierazitako faktura hauek aho-batez onartu dira:

1	Maider Romo Arizmendi	4.332,40 euro (BEZ barne)
2	Nazertek Aholkularitza S.L.	3.630,00 euro (BEZ barne)
3	Goimen Elkartea	3.167,50 euro.

## **GALDE-ERREGUAK**

Atal honetan gaiaren presa ikusirik, aho batez onartu da eguneko gai zerrendan honako diru laguntza eskaeren onarpen espedientek sartzea, eta jarraian aho batez diru laguntza eskaera hauek aurkeztea onartu da:

-DUS-5000 programaren barne: Mutiloako Argindar sarea berritze lanak proiektua sartzea.

-Lurraldea berritzeko, jarduera sozioekonomikoa suspertzeko eta despopulazioaren aurka borrokatzeko programaren barne: Publiko eta Pribatu helburua dituen Errotatxo Kontserbatzea eta Berritzea izeneko proiektua 222.373,40 euroko aurrekontuarekin (BEZ barne).

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko 20:00ak direnean eta horren fede, nik idazkariak ematen dut.

Martin Iparragirre Mujika, Secretario-Interventor del Ayuntamiento de Mutiloa, del Territorio Histórico de Gipuzkoa,

---

**CERTIFICO:**

Que el Ayuntamiento Pleno, en sesión Ordinaria celebrada en fecha 11 de mayo de 2022 adoptó, entre otros, el acuerdo que se transcribe a continuación:

**APROBAR EL PROYECTO A PRESENTAR EN EL PROGRAMA DE SUBVENCIONES PARA LA FINANCIACIÓN DE PROYECTOS PROMOVIDOS POR ENTIDADES LOCALES PARA LA INNOVACION TERRITORIAL Y LA REACTIVACIÓN DE LA ACTIVIDAD SOCIOECONÓMICA Y LA LUCHA CONTRA LA DESPOBLACIÓN**

Visto que dicho programa ha sido publicado en el Boletín Estadístico de 25-03-2022, en su virtud, una vez examinado y debatido suficientemente el asunto, el Pleno Municipal, por unanimidad adopta el siguiente

**ACUERDO:**

**PUNTO**

**UNICO:**

Presentar en el Programa de Subvenciones para la financiación de proyectos para la innovación territorial y la reactivación de la actividad socioeconómica y la lucha contra la despoblación el proyecto denominado "CONSERVACION Y REHABILITACION DEL MOLINO ERROTATXO CON DESTINO A FINES PUBLICOS Y PRIVADOS" con un presupuesto de 222.373,40 euros (IVA incluido).

Y para que conste, a los efectos oportunos, extendiendo la presente certificación de orden, y con el Visto Bueno del Sr. Alcalde.

---

Mutiloa, 14 de junio de 2022

Vº Bº

EL ALCALDE

**CERTIFICO:**

Que el Ayuntamiento Pleno, en sesión Ordinaria celebrada en fecha 11 de mayo de 2022 adoptó, entre otros, el acuerdo que se transcribe a continuación:

**APROBAR EL PROYECTO A PRESENTAR EN EL PROGRAMA DE SUBVENCIONES PROGRAMA DUS 5000. AYUDAS PARA INVERSIONES A PROYECTOS SINGULARES LOCALES DE ENERGÍA LIMPIA EN MUNICIPIOS DE RETO DEMOGRÁFICO**

**ACUERDO:**

**PUNTO**

**UNICO:**

Presentar en el Programa de Subvenciones DUS 5000. AYudas para inversiones a proyectos singulares locales de energía limpia en municipios de reto demográfico el proyecto denominado "TRABAJOS DE RENOVACIÓN DEL ALUMBRADO PÚBLICO PARA EL MUNICIPIO DE MUTILOA"

Y para que conste, a los efectos oportunos, extendiendo la presente certificación de orden, y con el Visto Bueno del Sr. Alcalde.

---

Mutiloa, 14 de junio de 2022

Vº Bº

EL ALCALDE



**EL AYUNTAMIENTO DE MUTILOA CERTIFICA:**

Que LAS ACTUACIONES del "TRABAJOS DE RENOVACIÓN DEL ALUMBRADO PÚBLICO PARA EL MUNICIPIO DE MUTILOA" OBJETO DE SOLICITUD EN LA SUBVENCIÓN DUS5000 no genera efectos adversos según lo descrito en el compromiso de RED NATURA 2000

Y para que conste, a los efectos oportunos, extendiendo la presente certificación de orden, y con el Visto Bueno del Sr. Alcalde.

---

Mutiloa, 14 de junio de 2022

Vº Bº

EL ALCALDE

